

PLANGINTZA ESTRATEGIKOAREN ZEHAZTAPEN PROZESUA

2011KO URRIA-ABENDUA



Durango, 2011ko abendua

Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. HELBURUAK	4
3. PROZESUAREN DESKRIBAPENA	5
4. METODOLOGIA	9
5. PARTE-HARTZEA	11
6. LEGEGINTZALDIRAKO PROIEKTU ESTRATEGIKOAK	13
7. BALORAZIO OROKORRA	17
8. AURRERA BEGIRAKO URRATSAK	19

1. Sarrera

2010. urteko udazkenean Bergarako Udalak gogoeta-prozesu zabal bat jarri zuen abian, etorkizuneko udalerrri-eredua herritarrekin irudikatu eta erabakitzeke asmoz. Izan ere, geldialdia egin eta aurrera begira jarri ezean, gizartearen inertzia eta joera nagusiak gailentzen dira egunerokotasunean eta, ustekabean bada ere, herriak berak kontzienteki erabaki gabeko eskenatoki batean buka dezake.

Bergarak modu kontzientean erabakitako norabidea edo markoa izan nahi du eta lan hori herritarrekin elkarlanean egin nahi izan du. Bi izan dira, hortaz, 2010ean abiatutako prozesu honen helburuak. Alde batetik, Udalaren eguneroko kudeaketarako baliagarri izango den erreferentziatzeko marko sendoa izatea. Izan ere, Udalek egunero hartu behar izaten dituzte hainbat erabaki handi edo txiki, eta erabaki horien bitartez etorkizuna baldintzatzen ari dira eta herri-eredua definitzen, askotan modu inkontzientean. Epe luzerako definizio edo marko horren falta sumatzen zuen Bergarako Udalak eta, norabide hori marraztu nahi izan du.

Bigarren helburua, berriz, etorkizuneko marrazki hori herritarren parte hartzean oinarrituta egitea izan da. Herritarrak eurak dira herriaren arima, euren herria hobekien ezagutzen dutenak, eta ezagutza hori bildu nahi izan du Bergarako Udalak. Horrela, espazio demokratikoak zabaltzeko eta parte-hartzeko kultura politikoa hedatzeko urratsa eman nahi izan du, eragindako subjektuak egitasmoaren subjektu aktibo eta eraikitzaile bilakatuz.

Aurreko legegintzaldiaren amaieran udalerriko diagnostikoa egin zen eta herritarrek aurrera begirako helburu nagusiak zehaztu zituzten. Etorkizunean nolako herrian bizi nahi duten eta nolako herritarrak izan nahi duten irudikatu zuten. 2011ko udazkenean legegintzaldira ekarri nahi izan dugu aurrera begirako egitasmo hori, legegintzaldi honetarako proiektu estrategikoak, helburuak, ekintzak eta arduradunak zehaztuz. Fase honen egitekoa lehen irudikatutako amets horiek doitzea izan da, nahimenak ahalmenetara ekartzea eta, ditugun baliabideak kontuan hartuz, oinak lurrean ipini eta plangintza errealistagoa gauzatzea. Horretarako, herritarrekin 3 bilera egin ditugu.

Udazken honetako prozesuaren emaitza aparteko dokumentu batean jaso dugu. Izan ere, lehenetsuna eman diogu Udalarentzat erabilgarria eta malgua izango den erreminta izateari. Hori dela eta, plangintza bera excel dokumentu batean jaso dugu, urteka, batzordeka, proiektu estrategikoka edo nahierara ordenatu eta banatu ahal izango dugulako.

Txosten honetan, berriz, honako atalak jaso ditugu:

- Prozesua: egitasmoaren helburuak, emandako urratsak, metodologia, parte-hartzea...
- Legegintzaldi honetan abian jarriko diren proiektu estrategikoen laburpena.
- Prozesuaren balorazio orokorra.
- Aurrera begirako urratsak.

2. Helburuak

Hona hemen egitasmo honen bitartez lortu nahi izan ditugun helburuak:

HELBURU OROKORRAK:

Aurreko legegintzaldian landutako etorkizunera begirako markoa oinarri moduan hartuta, legegintzaldi honetarako plangintza osatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Plangintza horretan proiektu estrategikoak identifikatzea, egungo baliabideak kontuan hartuta, eta horiek gauzatzeko epealdiak eta arduradunak zehaztea.
- Plangintzari segimendua egiteko tresna sortzea.
- Plangintzaren zehaztapena herritarrekin elkarlanean egitea, parte-hartzean oinarrituriko biritza komunitarioa eta kultura politikoa sustatzen jarraitzeko.
- Aurrerantzean ere herritarrekin elkarlanean jarraitzeko eta plangintza elkarrekin gauzatzeko oinarriak jartzea.

3. Prozesuaren deskribapena

Hona hemen prozesu honen urrats nagusien deskribapena:

1. AURRELANAK

1.1. Talde Eragilea bera osatzea eta abian jartzea.

Talde Eragilea izan da egitasmo hau antolatzeko, kudeatzeko eta segimendua egiteko arduraduna, baita egitasmoa garatzeko beharrezkoak diren bitartekoak jartzekoa ere. Hori dela eta, lehen urratsa talde hori sortzea izan da. Taldea honako kide hauek osatu dute: parte-hartzeko zinegotzia (Jaione Isazelaia), parte-hartze kontuetan udalaren kolaboratzailea (Ander Elorza), 11barriko komunikazio-teknikariak (Lore eta Agurne) eta Elhuyar Aholkularitzako teknikariak (Amaia eta Oihana). Talde honek prozesu guztian zehar 4 bilera egin ditu.

1.2. Prozesuaren kronograma egokitzea.

Egitasmoa urrian hasi genuenez, lehenbiziko lana epeak zehaztea izan zen, urtea bukatu aurretik amaitzeko. Bilera-egunak jarri genituen eta kronograma horren arabera egin dugu lan prozesu guztian zehar.

1.3. Komunikazio-plana lantzea eta gizarteratzen hastea.

Komunikazioak garrantzia berezia hartzen du gisa honetako egitasmoetan. Horretarako, Talde Eragilean komunikazio-plana diseinatu genuen, honako helburuarekin: Bergarako udalerriko herritarrei egitasmoaren berri ematea, parte hartzeko dituzten aukerak jakinaraztea, urrats bakoitzaren berri ematea eta bukaerako emaitza helaraztea.

Aurrelanen atal honetan, hainbat ekintza burutu genituen komunikazioaren ikuspegitik:

- Gutuna bidali zitzaien politikariei, udal langileei eta plangintza estrategikoaren lehen fasean parte hartu zutenei, prozesuaren berri eman eta bertan parte hartzera gonbidatuz.
- Webgunean prozesuaren inguruko informazioa eskegi zen.
- Atarietan bandoa jarri zen, prozesua abiatzera zihoala eta bilera-egunen berri emateko.
- Eragile berriekin harremanetan jarri ginen, batez ere gazteekin, prozesu honetan parte hartzera gonbidatzeko.
- Sare sozialetan egitasmoaren berri eman zen, facebook eta twitterren hain zuzen.
- Herriko gune estrategikoetan kartelak ipini ziren.
- Hedabideetara prentsa-oharra bidali zen, egitasmoaren berri emateko.

1.4. Lantaldearen osaera zehaztea.

Gai hau ere Talde Eragilean landu zen. Hasiera batean Talde Iraunkorrean izena eman zutenak gonbidatzea genuen buruan, baina prozesua zabaltzea erabaki genuen eta gonbidapena herritar orori luzatzea. Aipatu

bezala, horren araberako komunikazio-ekintzak burutu genituen, ahalik eta jende gehienak parte har zezan. Udaleko langileek eta politikarien parte hartzea bermatzeko ere ahalegin berezia egin genuen.

2. LANTALDEEN BILERAK

3 bilera egin ditugu herritarrekin, 2 ordukoak, urria eta azaroan. Bilera horietan parte-hartzeko metodologia erabili dugu eta parte-hartzea bideratzeko teknika ezberdinak erabili ditugu. Talde txikitan lan egiteko guneak sortu ditugu, eta lantalde osoari ere bere espazioa eskaini diogu. Helburua plangintza guztion artean zehaztea izan da.



Bitarte horretan komunikazioa ere bereziki zaindu dugu. Bilera batetik bestera parte-hartzaileei dokumentazioa bidali zaie, deialdia sms eta sare sozialen bidez egin da, webgunean ere informazioa berritu da, eta Goiena telebista eta Goienkarian prozesuaren berri eman da.

3. BUKAERAKO URRATSAK


Azken fase honetan hiru lan nagusi egin dira: egindako lana txosteneratzea, prozesuaren balorazioa eta plangintzaren gizarteratzea.

3.1. Azken txostena

Egindako lana txosten batean jaso dugu. Txostenak batez ere prozesuaren inguruko datuak jasotzen ditu, eta emaitzaren laburpen bat. Plangintza bera aparteko dokumentu batean jaso dugu, erabilgarriagoa eta malguagoa izatea nahi baikenuen. Txostena eta egitasmoaren inguruko dokumentazio guztia jasotzen duen CDa Udalaren esku daude.

3.2. Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa

Prozesuaren balorazioa bi gunetan egin da: herritarren lantaldean eta Talde Eragilean. Balorazio horretan



4. Metodologia

Elhuyar Aholkularitzak Reflect Ekintza¹ ikuspegi metodologikoan oinarritzen du bere lana. Lan egiteko ikuspegi berri hau 1993an sortu zen Reflect izenarekin, El Salvadorren, Ugandan eta Bangladeshen egindako esperientzia pilotuetan, Paulo Freire brasildar pedagogoaren ikuspegi psikosoziala eta DRPko (Diagnostico Rural Participativo) teknikak helduen alfabetatze-prozesuetan elkarrekin aplikatu zirenean (Archer,1997).

Lehenengo esperientzia horiek prozesu baten hasiera besterik ez ziren izan, orduetik gaur egunera, erabateko eboluzioa eta hazkundera izan baitu lan egiteko era honek, eta gaur egun Asia, Amerika, Afrika eta Europako 58 herrialdetan erabiltzen da.

Hego Ameriketako herrialdeetan, hasierako esperientziak berriz aztertu ziren “Educación Popular” (EP) delakoaren praktikak eta parte hartzeko ikerketa (IAP) kontuan hartuta. Horren ondorioz, hausnarketatik ekintzetara pasatzeak indar berezia hartu zuen Hego Ameriketako RE esperientzietan.

Prozesuen perspektiba dialektiko horregatik eta errealitatea bera prozesu horien bidez aldatzeak hartzen duen garrantziagatik, Hego Ameriketako Reflect Ekintza izena hartu zuen.

Ikuspegia behin eta berriz aberastu da, eta perspektiba, teoria eta praktika desberdinen eraginez berregokitu egin da; izan ere, taldeek, esperientzia berriak egiten dituzten bakoitzean, haien praktika eta posizionamenduekin aberasten dute.

RE, beraz, ikuspegi dinamikoa da, eta sortu zenetik, etengabe ari da aldatzen eta interesgarriak diren teoria eta praktiketatik ikasten. Prozesu honen abiapuntua pertsonak dira, ekintza eragiten, bideratzen edota egiten duten pertsonak, hain zuzen ere. Hortik abiatuta, gure errealitatea, bai gertukoa, baita estrukturala ere, “irakurri” egiten dugu. Poliki-poliki, prozesua subjektibitatean oinarriturik eraikiz joaten da eta subjektibitatearen sozializazioak taldearen posizionamendua dakar berekin.

Etengabeko joan-etorri dialektikoan murgildurik, batetik, ekintza-hausnarketa-ekintza (praktika-teoria-praktika), eta, bestetik, pertsona-taldea-pertsona, gure errealitate subjektibo eta objektiboa sistematizatu eta barneratzen goaz, eta pertsona eta talde bezala berriz posizionatzen gara. Prozesuaren kontrola parte-hartzaileek dute prozesuaren urrats guztietan.

RE ikuspegiarekin egindako prozesuek parte hartzaileen jabetasuna (empowerment) lortzen dute.

Ondoren REk dituen ezaugarriak zerrendatuko ditugu:

- *Parte-hartzea eragiten du.* Pertsonak zerbait bizi dutenean, beraiena egiten dute (“jabetzen dira”) eta horrela inplikatu egiten dira.
- *Bibentziala da.* Norberaren bizipenetan oinarrituta aztertzen da egoera.
- *Talde-izaera sendotzen du.* Horrela, taldea bera prozesuaren eragile izatea lortzen da. Pertsona bakoitzak bere espektatibak ditu eta garrantzitsua da taldearen dinamikan kontuan hartzea.
- *Kalitatezko parte-hartzea lortzeko lan-eskema mailakatua da.* Banakako lanetik hasita, talde txikitik eztabaidatu eta adosten da, eta, bukatzeko, denen artean berriz ere eztabaidatu eta adosten da.
- *Bisuala da.* Egoerak bisualki planteatzen dira errazago aztertu ahal izateko.


¹ Aurrerantzean RE

- *Denen artean eraikitako prozesua* bideratzen du.
- *Aldaketa eragiten du.* Ekintzarekiko identifikazioak aurrera egitea dakar; taldeak berak proposatutakoa bultzatzen baita.

Laburbilduz, hau lortzen da:

Taldeko pertsonen esperientzietan oinarrituta eta parte-hartzea eragiten duten zenbait teknika erabiliz, hausnarketarako bideak jarri eta aldaketarako ekintzak lantzeko oinarriak finkatzen dira.

Hona hemen idatziz azalduetako grafikoki irudikatzen duen eskema:




Ikuspegi metodologiko honekin lan egin dugu proiektu honetan. Prozesuan parte-hartzea eragiteko hainbat teknika eta dinamika erabili dira. Eragindako subjektuen gogoetak, iritziak eta analisi-gaitasuna izan dira egitasmoaren oinarri, eta herria bera izan da bere etorkizuna irudikatzen duen prozesu honetako subjektu aktiboa. Eraikuntza kolektiboko esperientzia izan da ardatza, hortaz.

5. Parte-hartzea

Prozesuan 82 lagunek hartu dute parte, erdiak gizonezkoak eta erdiak emakumezkoak. Asistentzia mantendu egin da gutxi gora behera bileratik bilerara; 60 lagun inguru egon gara bileran bakoitzean. Gehienek plangintza estrategikoaren lehen fasean ere hartu zuten parte, baina jende berriak ere parte hartu du. Gazteen parte hartzea bermatzen saiatu gara, eta aurreko fasean baino gazte gehiago egon badira ere, oraindik batezbesteko adina nahiko altua izan da.

Lehen bileran mapa batean jaso genuen parte-hartzaileen jatorria, hau da, bakoitza zein auzotatik zetorren. Halaber, kolore bidez bereiztu genituen politikariak (berdea), udaleko langileak (urdina), herriko eragileak (gorria) eta herritarrak (horia).





Bileretatik kanpo, sare sozialen bitartez ere jarraitzaileak izan ditugu. Sare sozialen bitartez, zera lortu nahi izan dugu: egitasmoaren berri ematea, eta ahalik eta jende gehienarengana iristea. Eta helburua lortu dugu: facebooken, esaterako, ia 600 lagun inguru ditugu. Dena den, esan bezala, horiek ez dute prozesuan parte hartu ekarpenak eginez.

6. Legegintzaldirako proiektu estrategikoak

Aurreko legegintzaldian herritarrek nolako herrian bizi nahi duten eta nolako herritarrak izan nahi duten zehaztu zuten, eta arlo ezberdinetarako helburuak ere definitu zituzten. Aurrera begirako iparra edo ametsa eraiki zuten, eta ametsaren oinarriak edo zutabeak definitu. Ekar ditzagun gogora etorkizuneko Bergara horren oinarriak:

- **Nortasun propioa:** gure historia, hizkuntza, paisaia, kultura... zaindu, elikatu eta transmititu nahi dugu.
- **Kohesioa:** auzoen eta herri-gunearen arteko loturak sendotu nahi ditugu eta, desberdintasun ekonomiko eta sozialak gaindituz, bergararren artean gertuko harremanak garatu nahi ditugu.
- **Bizi-kalitatea:** herri atsegin batean bizi nahi dugu, egungo biztanle-kopurua mantenduz eta arlo ekologiko, kultural, ekonomiko eta sozialen arteko oreka zainduz.
- **Autoeraketa:** herri bizi eta aktiboa izan nahi dugu eta berezkoa dugun autoeraketarako kultura garatu.



Horiez gain, 7 ardatzetan bildu genituen aurrera begirako helburuak: herrigintza, sozioekonomia, ingurumena, lurralde antolamendua, hezkuntza, euskara eta euskalduntasuna, kultura eta kirola. 7 ardatz horietarako zehaztutako helburuetatik abiatu gara legegintzaldi honetarako plangintza osatzeko. Lehentasunak ezarri ditugu, eta guztira 18 proiektu estrategiko aukeratu ditugu. Proiektu horiek legegintzaldi honetan abian jarriko dira, baina ez du esan nahi epealdi honetan hasi eta bukatuko direnik.

Hona hemen 18 proiektu estrategiko horien laburpena:

- **Udalgintza herritarrekin.** Proiektu honen bitartez Udala herrira gerturatu nahi da, Udaleko atea herritarrei zabaldu, eta herriko eragile ezberdinen arteko elkarlana bideratu. Herria guztion artean eraikitzea da asmoa, eta eragile ezberdinen arteko sareak ehuntzen eta sendotzen jarraitzea. Egungo gizartearen joera indibidualistari Bergarak talde-lanaren eta elkarlanaren bitartez erantzun nahi dio.
- **Auzolana.** Gure kulturen garrantzitsua izan da auzolana, eta praktika horri loturik doaz hainbat balio, mundua ikusteko eta ulertzeko modua bat, harremanak eraikitzeko modu bat... Arbasoen jakituria hori berreskuratu nahi da, gizarte-eredu berri bat eraikitzeko oinarri gisa.
- **Gazteen autogestioa.** Autoeraketa Bergararen herri-dinamikan txertatuta dago, eta horren adierazle dira herrian dauden elkarte eta talde autoeratu guztiak. Legegintzaldi honetan, batez ere gazteen autoeraketan sakondu nahi da, gazteak izango direlako etorkizuneko herritarrak eta etorkizuneko lidergoa eramango dutenak. Hori dela eta, garrantzitsua da gazte horiek Bergara biziberritzeko balioetan eta praktikan heztea eta prozesu horren eragile aktibo bihurtzea.

13

- **Berrikuntza-gunea.** Arlo ekonomikoan Bergara puntako herria izan da historikoki (ehungintza, metalurgia...), baina azken hamarkadetan erreferentzia hori galtzen joan da. Gainera, egun kanpoko enpresekiko dependentzia handia da eta herriko motor ekonomikoa bertako enpresengan egon beharko litzateke. Bergarako ekonomia suspertzeko beharra sumatzen da, eta horretarako potentziala baduela sentitzen dute herritarrek. Aurrerantzean gainera, ekonomiaren dibertsifikazioa sustatu nahi da, herriko aberastasuna sektore ezberdinetatik eratortzeko.

Herriko eragile ezberdinen artean (lanbide heziketa, unibertsitatea, enpresak, sindikatuak, Udala...) berrikuntza-gune bat sortzeko aukerak interesa piztu du herritarren artean, herritarrek egun eta etorkizunean izango dituzten beharrei erantzuteko ikerketa-lanak eta zerbitzuak eskainiko dituen. Izan ere, ase gabeko hainbat behar ateratzen joan dira plangintzan zehar: birziklatutako materialekin produktu berriak ekoiztea, nagusiek etxean bizitzen jarraitu ahal izateko zerbitzuak, energia berriztagarria ekoiztea, lehen sektorea indartzeko ikerketak, eta abar. Iparra autosufizientziarako gaitasuna haztea da, bergararrek behar dutena bertan ekoiztuz geroz eta gehiago. Horrek ere ingurumen alorrean eragina du, eta gizarte iraunkorrako bat sortzen lagunduko liguke.

Dena den, berrikuntza-gunearen proiektua definitzen hasi aurretik, herritarrek egoera ekonomikoaren azterketa sakonagoa egitea proposatzen dute.

- **Lana.** Egungo krisi ekonomikoarekin langabezia dagoen pertsona-kopuruak gora egin du eta horrek herritarren arteko desberdintasun ekonomikoak sortu ditu, baita bizirauteko egoera larriak ere. Proiektu honen helburua bertako enplegua sustatzea izango da, herritarrek herrian bertan lan egiteko aukera izan dezaten. Horrek desplazamenduak murrizten lagunduko liguke eta, hortaz, mugikortasunaren alorrean ere urratsak emateko bide bat da. Izan ere, jendea batetik bestera mugitzeko arrazoi nagusia norberaren etxebizitza lantokitik edo ikasteko zentrotik urrun egotea da.

Bertako enplegua sustatzeko bi bide nagusi atzeman ditugu: batetik, ekintzailetasuna sustatzea eta batez ere gazteak negozio berriak sortzera bultzatzea eta, bestetik, plangintza garatu ahala sortzen diren negozio berrietan bertako langileak kontratatzea.

- **Turismoa.** Bergarak turismorako potentzial handia du, baina herritarrek uste dute ez duela jakin potentzial hori behar bezala ustiatzen. Bergara da monumentu katalogatu gehien dituen Gipuzkoako 2. herria, ondare historiko, kultural eta arkitektoniko aberatsa du (orain arte gehiegi babestu gabea), ingurumen aldetik ere erakargarria da, lorategi historikoa ere hor dago, UNED, ikuskizun kulturalak eskaintzeko aukerak, ehungintzaren alorrean egindako ibilbidea, gastronomia (gozogintza), etab. Aurrerantzean turismoa herriko diru-iturri garrantzitsua izatea lortu nahi da, eta horretarako proiektu izarra Errege Seminarioaren museoa izango da.

- **Iraunkortasuna.** Azken urteetako garapen-ereduak ingurumenean eragin nabarmena izan du, Bergaran ez ezik, Europako herrialde askotan: zabor asko ekoizten da (erabili eta bota kulturari erantzunez), gutxi birziklatzen da eta zaborteak gainezka daude; hondakin mota berriak sortu dira (elektronikoak, kasu); azpiegitura erraldoiak eraikitzen ari dira (autopistak, abiadura handiko trenak, etab); aldaketa klimatikoa... Eredu kontsumistaren adierazle batzuk baino ez dira. Etengabeko hazkundearen logikak gure planetaren muga fisikoak bistarazi dizkigu, eta gero eta nabariagoa da garapen-eredu hori ezin dela epe luzera mantendu. Proiektu honen helburua, hortaz, Bergarako natur baliabideak era arduratsuan kudeatzea da, etorkizuneko belaunaldien

beharrak betetzeko gaitasuna ez sakrifikatzeko. Horretarako diseinatu zen Agenda 21 egitasmoa, eta bertan jasotakoak garatzea izango da hurrengo urteetako lana.

- **Kontsumo arduratsua.** Esan bezala, gehiegizko kontsumoaren eredia ez da epe luzera eutsigarria eta horrek gure kontsumo-eredua aldatzeko neurriak hartzea eskatzen du. Alor honetan horretarako neurriak landuko dira, eta batez ere energiaren ekoizpenari eta kontsumoari erreparatuko diogu. Dependentsia energetikoa murriztea izango da helburu.
- **Zero zabor.** Zaborra egungo eztabaiden erdigunean kokatu zaigu. Bizimoduaren aldaketak, higienaren aldeko araudiek, zaborraren inguruan sortutako interes ekonomikoek eta erabili eta botaren kultura errotuak zabor ekoizpena asko ugaritu dute. Proiektu honen helburua zabor produktzioa murriztea izango da eta gaikako bilketarako kudeaketa-sistema egokiak ezartzea, ahalik eta zabor kopururik handiena berrerabili eta birziklatzeko.
- **Herrira begira hezi.** Hezkuntza da gizarte baten oinarri garrantzitsuenetakoa eta herri-eredu berri bat eraiki nahi badugu, ezinbestean landu beharreko eremua. Marraztutako Bergara horretarako iristeko etorkizuneko belaunaldiak balio ezberdin batzuetan hezi beharko ditugu ezinbestean. Hori dela eta, proiektu honen helburua izango da herrian dauden ikastetxe ezberdinetako hezkuntza-proiektuetan eragitea eta hezkuntza-erakunde ezberdinen artean eta hezkuntza eta herriko gainerako eragileen artean elkarlanerako bideak zabaltzea. Hezkuntza-erakundeak herriko dinamikan bizirik dauden eragile izan behar dute.
- **Euskalduntasuna.** Bergara herri euskalduna izan da historikoki, eta egun ere UEMako herrien artean dago. Euskal nortasun hori zaindu, transmititu eta indartu nahi dute herritarrek eta horretarako ezinbestekoa da nortasun hori ondorengo belaunaldietan birsortzen jarraitzea, euskaldun izatearen motibazioak bizirik iraun dezan. Hori da, hain zuzen ere, proiektu estrategiko honen erronka.
- **Euskara ahoan.** Aski jakina da ezagutzak ez duela erabilera bermatzen. Euskararen ezagutza asko hedatu da azken hamarkadetan, baina ezagutzaren eta, batez ere, motibazioaren edalontziak ez daude aski beteta erabilera bermatzeko. Horri erreparatu nahi dio proiektu honek, Bergara euskararen arnagune izateko.
- **Mugikortasuna.** Ibilgailu pribatuen erabilera asko hazi da azken urteetan. Azken 20 urteetan Bergarako biztanleria % 5 gutxitu da, familia-kopurua % 28 hazi da eta ibilgailu-kopurua, berriz, % 59. Baina, esan bezala, gure planetaren mugak geroz eta azaleratuago daude eta ondorengo urteetan petrolio merkearen aroak goia joko duenaren zantzuak daude. Beste gizarte-mota baterako prestatu behar dugu, halaberrez. Bergararrek lurraldearen kohesioa zaindu nahi dute, eta herritarren artean gertuko harremanak garatu, slow food filosofiari jarraiki. Mugikortasunaren alor honetan, horretarako, bergararrek oinezkoek lehentasuna izango duten herri bat sortu nahi dute.
- **Etxebizitza.** Jabetza pribatuaren eredia da nagusi gure gizartean, eta horrek etxebizitzaren alorrean desoreka handiak eta espekulatzeko aukerak sortu ditu. Egun herritar askok ez dute etxea izateko aukera bermatuta. Lurralde antolamenduari dagokionez ere, lur asko okupatu dugu azken urteetan etxebizitzak eraikitzeko. Bergararen helburua egungo biztanle kopurua mantentzea da, eta horretarako ez du etxebizitza berrien premiarik erdigunean. Auzoak ez husteko, berriz, etxebizitza-politika egoki bat garatzeko premia sumatzen da. Proiektu estrategiko honen erronka

izango da, lur berriak okupatu gabe, dauden etxebizitzetara irtenbidea ematea (hutsak merkaturatuz, zaharrak errehabilitatuz) eta alokairuaren kultura sustatzea.

- **Auzoak bizirik.** Bergarak auzo ugari ditu bere ingurunean, eta auzoek euren dinamika propioa dute. Identitate lokal hori mantentzea eta transmititzea oso garrantzitsua da, eta horretarako urratsak ematea da proiektu honen helburua. Auzoetan bizitza egotea nahi dute herritarrek, eta horretarako beharrezkoa da bertan aktibitate ekonomikoak egotea, aisialdirako aukerak izatea, gutxieneko zerbitzuak egotea... Auzoak dira, gainera, lehen sektorearen kokaleku eta eredu iraunkorrari begira oso garrantzitsua da sektore horren biziraupena bermatzea. Elikadura subiranotasunean sakontzea izango da iparra, bertan ekoizten dena bertan kontsumituz.
- **Kulturgunea.** Kulturgintza da giza-komunitate baten erregai sinbolikoa, gizaki eta komunitatearen amets eta kezken adierazle, komunitatea kohesionatzeko elementu garrantzitsua, arimak biziberritzen dituen eta komunitatean bizi-poza zabaltzen duena. Gizarte guztietan kultur sorkuntzak toki garrantzitsua betetzen du, historiaurretik hona. Gurean ere horrela izan da. Proiektu honen helburua izango da egun sakabanaturik dauden kultur adierazpenak batzea, kohesionatzea, artikulatzea eta Bergarako etorkizuneko kulturgintzaren gogoeta egitea elkarrekin. Kulturgunearen proiektua izan daiteke kultur sorkuntza eta gizarteratzea dinamizatzeko gune egokia.
- **Kirola saretzea.** Kirola lanari loturik egon da mendez mende, eta gaur egun lan-eredua aldatzerakoan kirola ofizio izatetik afizio izatera pasa da gehiengoaren kasuan. Proiektu estrategiko honen helburua ere kirol eragile guztien arteko artikulazioa bideratzea izango da, eta guztion artean kirolaren inguruko gogoeta zabala egitea.
- **Gizarte-zerbitzuak.** Herrikideen ongizatea bermatzea da gizarte-zerbitzuen egitekoa. Langintza hori areagotu egin da azken urteetan, krisia medio. Gizartearen zahartzeak erronka berrien aurrean kokatu gaitu sektore honetan ere. Eta hori izango da segur aski gizarte-zerbitzuen erronka nagusia aurrerantzean; nagusiek bizitza duina eraman ahal izateko zerbitzuak garatzea. Besteak beste, alor horri erantzutera dator proiektu estrategiko hau.

7. Prozesuaren balorazio orokorra

Prozesuaren amaieran, herritarren lantaldearekin eta Talde Eragilearekin egin dugu prozesuaren balorazioa. Bi guneetan modu positiboan baloratu da prozesua. Hona hemen, xeheago, herritarrek egindako balorazioaren emaitza:

	☹️	☹️	😊	😊
Egindako lana	x		XXXXXXXXXX XXXXXXXXXX XX	XXXXXXXXXX
Parte hartzea			XXXXXXXXXX XXXXXXX	XXXXXXXXXX XXXX
Lortutako emaitza		XXXXXXXXXX XX	XXXXXXXXXX XXXXXXXXXX	XXX
Giroa			XXXX	XXXXXXXXXX XXXXXXXXXX XXXXXXXXXX

Oro har, herritarrak gustura sentitu dira prozesuan zehar. Lortutako emaitza izan da balorazio eskasena jaso duen arloa, eta hainbat herritarrek aipatu dute prozesua apur bat motz geratu dela landu behar ziren edukiak lantzeko.

8. Aurrera begirako urratsak

Behin legegintzaldirako plangintza diseinatuta, Udaleko Batzorde bakoitzari bere plangintza propioa banatuko zaio, bertan jasotakoak gauzatzen hasteko. Gauzatze-faseari dagokionez, politikari, teknikari, herriko eragile eta herritarren arteko elkarlana izango da horretarako oinarria. Izan ere, Bergarako plan estrategikoaren diseinuan herritarrek parte hartu duten heinean beharrezkoa da planaren garapenean, helburuak lortzeko bidean eta ekintzak martxan jartzeko orduan ere, horien parte-hartzea bideratzea. Hau da, herria herritarrekin diseinatzeaz gain, hemendik aurrerako urratsak ere herritarrekin pentsatzea eta ematea. Prozesu honetan zehar sortu den dinamika kolektiboak nolabaiteko jarraipena izatea eskatzen du, eta hainbat herritar ere lanerako gogoz eta ilusioz agertu dira prozesuaren amaieran. Hilabete hauetan guztietan sortutako indarra, ilusioa eta konpromiso kolektibo hori elikatzen jarraitu behar da, itzal ez dadin eta Bergara herritarren parte-hartzea oinarri izango duen herri bihur dadin.

Plangintza osatzerakoan, herritarrek eurek adierazi dute herri bizi eta autoeratu batean bizi nahi dutela eta herritar konprometitu, inplikatu eta aktiboak izan nahi dutela, bakoitza bere esparruan. Elkarlana da behin eta berriro agertzen den helburua ere. Hori dela eta, plangintzaren gauzapena eta baita egindako urratsen arrakasta elkarlan horretarako gaitasunak baldintzatuko du hein batean.

Aurrera begira, parte-hartzeko bi gune egongo dira:

- **Talde Iraunkorra:** Talde honen egitekoa proiektu estrategikoen segimendua egitea izango da, plangintzaren betetze-maila aztertzea eta aurrera begirako neurriak ezartzea. Urtean bitan elkartuko da eta horietan proiektu estrategiko bakoitzean egindakoak azalduko dira, bidean izandako zailtasunak, lortutakoak... Halaber, proiektu bakoitzean hurrengo hilabeteetan emango diren urratsak zehaztuko dira. Segimendu hori urtero egingo da legegintzaldian zehar, ekainean eta abenduan, eta esku artean ditugun proiektu estrategiko kopurua kontuan hartuta, egokiena saio trinkoak egitea izango da.
- **Kontseiluak edo proiektu konkretuen garapenerako lantaldeak:** Legegintzaldirako definitutako proiektuak Udalak abian jarriko dituen Kontseiluetan garatuko dira. Kontseilu horren osaera honakoa izango da: gaiari dagokion ordezkari politikoak, udal teknikariak, herriko eragileetako ordezkariak eta herritarrak.

Azken bileran gune horietan parte hartzeko herritarren interesa jaso genuen. Talde Iraunkorrerako 14 lagunek eman dute izena. Lehen fasearen amaieran 32 lagunek eman zuten izena, eta kopurua murriztu egin da. Batzuk mantendu egin dira, beste batzuk beste proiektu batzuetan eman dute izena (4 lagunek) eta beste batzuk ez ziren azken bilerara etorri eta, beraz, ez zuten izena emateko aukerarik izan.

Kontseiluetarako izena 34 lagunek eman dute, eta batzuk Kontseilu batean baino gehiagotan parte hartzeko interesa agertu dute. Bi lagunek proiektu askotarako izena eman dute, eta ez dugu bideragarria ikusten. Hori dela eta, ondorengo taulan aparte kontabilizatu ditugu:

Udalgintza herritarrekin	3+1
Auzolana	5+2
Gazteen autogestioa	2+2
Berrikuntza-gunea	1+2
Lana	(2)
Turismoa	1
Iraunkortasuna	(1)
Kontsumo arduratsua	1+2
Zero zabor	(1)
Herrira begira hezi	4+1
Euskalduntasuna	7+1
Euskara ahoan	10+1
Mugikortasuna	1+1
Etxebizitza	1+1
Auzoak bizirik	5+1
Kulturgunea	7+2
Kirola saretzea	2
Gizarte Zerbitzuak	2+1